

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5146

HUTSEN ZUZENKETA, ebazpen honena: «Ebazpena, 2015eko azaroaren 23koa, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren Dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurkitzaileen Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Gisa horretako akatsak atzeman dira Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiaren 2015eko azaroaren 23ko Ebazpenean, zeinen bidez jendaurrean jartzen baitzen Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren Dekretu-proiektua (2015eko azaroaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 27. zk.). Hori dela eta, zuzendu egiten dira: Horrela bada, aipatu ebazpenarekin hari ez dagozkion bi eranskin argitaratu ziren (I. eta II.), eta, beraz, baliogabetu egiten dira.